

Kanalak

Komunikazio kanalak: Gure bezero potentzialek gure produktua ezagutu dezaten publizitatea egingo dugu. Saiatuko gara hainbat lekutan jartzen eta web orrialde bat sortuko dugu. Web orrialde honetan telefono zenbaki bat eta enpresaren e-maila egongo da, telefono zenbakiarekin eta e-mailarekin bitartez, gurekin jarraian kontaktuan jarriko dira eskaera egiteko.

Hasieran, erraza ez denez, guk izango gara hitzaldiak emango ditugunak, ikastolen zuzendariarekin geratuko gara aurrez ordu batean, ikastolara joateko eta gure proiektuaren ezaugarriak eta funtzionamendua ondo ulertu dezaten, beraz kanal propioa da. Web gunearen kasuan, beste enpresa bat subkontratatu dugu webgunea egiteko, beraz hori izango da komunikazio kanal egokiena.

Zerbitzuen banaketa, on-line denda bat muntatu dugu eta lokal bat alokatu dugu, bezeroekin harreman zuzena edukitzeko.

Banaketa kanala: posta bidez izango da, eta banaketa web orrialdearen kasuetara baita garraio enpresa baten bitartez egingo da, beste enpresa bat azpikontratatu dugu lan hori egiteko, eta beste kasu batzuetara edota etxera produktua bidaltzeko abantaila egongo da. Produktuaren eskaera kantitate txikian denean, gure lehengusuak duen furgoneta erabiliko dugu. Furgoneta erabiliko dugunez lehengusuari ordainsari bat emango dugu.

